

• **Futbola**

Athletic: Luis Fernandezek derbia ahaztu eta Ligako azken txanpa ahalik eta ondoen prestatu nahi du → **36**

• **Saskibaloia**

Euroliga: Gaur jokatuko dira Lauko Finaleko finalerdiak: Bartzelona-Maccabi eta Panathinaikos-Efes Pilsen → **38**

Reala ♦ Entrenatzailearen ustez, «taldea lasaitu egingo da salbazioa erdietsitakoan»

Behera begira oraindik

Clementek dio hobe dela sailkapenean gora ez begiratzea eta bestelako helbururik ez jartzea salbazioa matematikoki lortu arte

Jon Balenziaga / Donostia

JAVIER CLEMENTEK ez du bi asteren bueltan beltzetik zurira pasatu nahi, eta atzo emandako prentsurrekoan lehenik eta behin mailari eustea dela helburua esan zuen. «Sailkapeneko goiko postuak begiratu ere ez ditut egin. Horrenbeste denbora eman dugu behera begira, orain ere egunkaria hartu eta behera begiratu dudala. Hobe da behetoez ez fiatzea, goikoetan pentsatzea baino. Ea matematikoki jaitzierako postuei agur esaten diegun eta gero beste helbururen bat jartzeko denbora dugun. Aukera badago, ederki; ez badago, lasaitu egingo gara».

Taldeak erabateko lasaitasuna lortzen duenean eta beste erronkarik ez duenean, Realeko entrenatzaileak uste du guztiz lasaituko direla. «Behin mailari eustea lortu ondoren, goragoko postuetan sartzeko aukerarik ez badugu, normalena taldea lasaitzea izango litzateke. Gertatzen dena da, guk lortutako emaitzek beste talde batzuegan eragina izango dutela eta nolabaiteko interesa jarri beharko dugu. Ez dut esan nahi ezer egingo ez dugunik, baina taldea lasaitu egingo da. Entrenamenduen maila ere jaitsi egingo dugu».

Liga amaitzeko bost jardunaldi geratzen dira, eta diruz betetako maletinen susmoak hasi dira. Javier Iruretagoie-

na Deportivoko entrenatzaileak Rayoren errendimendua azaldu zuen herenegun. Clementek, bere bizitzan zehar, mota honetako maletin gutxi ikusi dituela esan zuen atzo. «Urte asko daramatzat futbole, baina oso gutxi ikusi ditut. Esandako guztiak egia balira... Nik entrenatzen nituen jokalariei behin eman zieten dirua, niri ez».

Clementek Athletici buruz gutxi hitz egin zuen atzo. «Lehen zatia oso berdindua izan zen, bigarrenean golak jaso ahala behera egin zuten jokoan». Luis Fernandezi buruz ez omen du puska batean hitz egingo. «Niri edo Realari buruzko tontakeria gehiago esan arte ez diot erantzungo», esan zuen atzo Raleko entrenatzaileak.

Igandean Coruñan jokatu beharreko partidua ere izan zuen hizpide. «Iruretak duela hamabost egun Real aurrakari erraza zela esan zuen. Seguru orain ez duela gauza bera esalitzateke. Esaten badu, ez da Realari buruz gaizkiesaka ariko; besterik gabe, haiek duten maila guk ez dugula usteko du».

Bestalde, Clementek dio ez dagoela jokalariei bere erabakiei buruzko azalpenik emateko. «Guerrerok ez dut uste begi onez ikusi duenik deialdian sartu, atera eta berriz sartzea. Beno, azkenean ongi ikusi du. Ni ez nago, ordea, azalpenak emateko».



PABLO S. QUIZA

De Paula buruz errematatzen, Lafuenteri aurrea hartuta, herenegun.

Aranburu gabe bi astean

REALAK herenegun Athletice aurka jokaturiko derbia emankorra izan zen emaitzari dagokionean txuri-urdinentzat, baina min hartutako lau jokalaririk izan ziren partidua hartan. Mikel Aranburu, Sergio Corino, Miguel Fuentes eta Loren. Horren ondorioz, Clementek ezingo ditu Aranburu eta Sergio Corino zelairatu igandean Coruñan. Aurrenak eskuineko saihetsetako bat hautsi du eta seguruena bi aste jokatu gabe eman beharko ditu. Atsedendian jada mina sentitu zuen azpeitiarrak, baina jokatzen jarraitu zuen bigarren zatiko 25. minutu

arte. Atzo azterketa sakona egin zioten eta bertan ondorioztatu zen haustura duela.

Corinok ez du hausturarik baina honek ere ezingo du jokatu igandean. Eskuin hankako orkaila bihurritu zuen. Bizkaitarrak atzokoarekin, hiru partidua daramatza Anoetan partidua hasi eta lehen hogeita minutuak bete baino lehen aldatu beharra izan dutela.

Fuentesek eta Lorenek ere mina dute eta zalan-tzan dira iganderako. Fuentesek, eskuin izarrean kontraktura bat du eta Lorenek ere beste horrenbeste eskuin zangoan.

Inoiz baino jende gehiago herenegun

Anoetan herenegun Real eta Athletice arteko derbia ikusten 30.841 ikusle izan ziren. Realaren historian inoiz izan den ikuslerik gehien bildu zituen herenegungo norgehiagokak. Horrenbeste jende joatearen gakoak bazkideengan egon zen: Realak egun dituen 26 mila bazkideetatik 25 mila joan baitziren. Lehen aldia da Anoetako partidua batera horrenbeste bazkide joaten dena.

De Paularen gol kopuru sekretua

Oscar de Paula izan zen derbiko protagonista nagusia; bi gol egin zituen. Bera da Realeko golegile nagusia, bederatzi golekin. «Nire helburua gol kopuru jakin batera iristea da. Denboraldi hasieran kopuru bat jarri nuen, baina nahiago dut zenbatekoa den ez esatea. Beste helburu bat ohiko titular izatea da, baina hori entrenatzailearen esku dago», zioen atzo De Paulak.

Gaur jai eta bihar berriro Zubietara

Realeko jokalariek atsedeen hartuko dute gaur, ez dute-eta lan saiorik izango. Deportiboren aurkako norgehiagoka (igandean, 19:30ean; Espainiako Canal Plus) prestatzen bihar hasiko dira, 10:30ean.